



Lehendakaria/Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

Kidea/Vocal

M^a Aranzazu Arana Learte

Idazkari-Kidea/Vocal Secretaria

María Yeregui Hernández

Resolución 9/2021 ebazpena

Recurso 3/2021 errekurtsua

GASKA GARBITASUNA HIGIENE SL enpresak errekurtsu berezia jarri zuen Gobernanzako foru diputatuaren martxoaren 5eko 2021-0423 Foru Aginduaren aurka, zeinaren bidez ebatzi baitzen JAI HORNIDURAK SL enpresarekin egitea Foru Kontratazioen Zentralaren bidez produktu higienekoak eta garbiketa produktuak hornitzeko esparru akordioaren (X20012 espedientea) 2. sorta (garbiketa produktuak). Errekurtsu horren inguruan, Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa, goian adierazitako kideak bertaratuta, honako erabaki hau hartu du, aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por GASKA GARBITASUNA HIGIENE, SL contra la Orden Foral 2021-0423, de 5 de marzo, de la diputada foral de Gobernanza, por la que se resuelve concluir con la empresa JAI HORNIDURAK, SL el lote 2 (productos de limpieza) del acuerdo marco para el suministro de productos higiénicos y de limpieza a través de la Central de Contratación Foral (expediente X20012), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

AURREKARIAK

LEHENENGOA.- Ebazpen honen idazpuruan aipatutako foru aginduaren aurka, GASKA GARBITASUNA HIGIENE SLk kontratazio arloko errekurtsu berezia jarri zuen, Auzitegi honen erregistroan 2021ko martxoaren 18an aurkeztutako idazkiaren bidez.

BIGARRENA.- Egun berean, Auzitegiak Gobernantza Departamentuko Idazkaritza Teknikoari igorri zion errekurtsua eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, eskatu zizkion kontratazio espedientea eta dagokion txostena (martxoaren 24an jaso ziren).

Halaber, ofizio horretan gogorarazi zitzaion, kontuan hartuta errekurtsua adjudikazio egintza baten aurka aurkeztu zela, kontratazio espedientearen izapidetzea etenda gelditzen zela,

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO.- Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 18 de marzo de 2021, GASKA GARBITASUNA HIGIENE, SL interpuso recurso especial en materia de contratación contra la orden foral citada en el encabezamiento de esta resolución.

SEGUNDO.- El mismo día el Tribunal remitió el recurso a la Secretaría Técnica del Departamento de Gobernanza y le solicitó, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP), el expediente de contratación y el correspondiente informe, que se recibieron el 24 de marzo.

Le recordaba asimismo que, dado que el recurso se había interpuesto contra el acto de adjudicación, la tramitación del expediente de contratación quedaba en suspenso en virtud de lo



SPKL 53. artikuluan xedatutakoaren arabera.

dispuesto en el artículo 53 LCSP.

HIRUGARRENA.- SPKLren 56.3 artikulua betez, errekurtsoa JAI HORNIDURAK SL enpresari, hain zuzen 2. sortaren esleipendunari, helarazi zitzaion, bost egun baliioduneko epean alegazioak aurkez zitzan.

TERCERO.- En cumplimiento del artículo 56.3 LCSP, se dio traslado del recurso a JAI HORNIDURAK SL, adjudicataria del lote 2, para que en el plazo de cinco días hábiles pudiera formular alegaciones.

Auzitegiaren erregistroan 2021eko martxoaren 30ean sarrera eman zitzaion idazki baten bidez aurkeztu zituen alegazioak, eta amaieran eskatu zuen errekurtsoa ezesteko.

Las presentó mediante escrito que tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 30 de marzo de 2021, en el que termina solicitando la desestimación del recurso.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Errekurtsoaren onargarritasuna

Admisibilidad del recurso

LEHENENGOA.- Errekurtsoa jartzen da esparru akordio baten 2. sortaren esleipenaren aurka. Akordio horren xedea da produktu higienikoak eta garbiketako produktuak hornitzea, 3.594.720 euroko guztizko balio zenbatetsiarekin.

PRIMERO.- El recurso se interpone contra la adjudicación del lote 2 de un acuerdo marco que tiene por objeto el suministro de productos higiénicos y de limpieza con un valor estimado total de 3.594.720 euros.

Beraz, errekurritutako egintzaren aurka kontratazio arloko errekurtso berezi bat aurkez daiteke, hala xedatzen baitu SPKLren 44. artikulua, 1 b) eta 2 c) apartatuetan, eta hura ebazteko eskumena Auzitegi honek dauka, hala agintzen baitu 24/2010 Foru Dekretuak, 2010eko irailaren 28koak, Kontratu Errekurtsoen Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzen duenak, 2.1 artikuluan.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1 b) y 2 c) del artículo 44 LCSP, y la competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

BIGARRENA.- Errekurtsoa jartzeko legitimazioa du errekurtsogileak, SPKLren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazioan lehiatu denez, eta errekurtsoa SPKLren 50.1.d) artikuluan aurreikusitako hamabost egun baliioduneko epean jarri da, kontuan hartuta aurkaratutako erabakiaren jakinarazpena 2021eko martxoaren 8an egin zela.

SEGUNDO.- La recurrente está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que ha concurrido a la licitación, y el recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.d) LCSP, si se tiene en cuenta que la notificación del acuerdo impugnado se efectuó el 8 de marzo de 2021.

Auziaren mamia

Fondo del asunto

HIRUGARRENA.- Diputatuen Kontseiluaren 2020ko abenduaren 15eko erabakiaren bidez onartu ziren Foru Kontratazio Zentralaren bitartez higiene eta garbiketa produktuak hornitzeko esparru akordio bat ixteko kontratazio espedientea, bai eta

TERCERO.- Por acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 15 de diciembre de 2020 se aprobó el expediente de contratación para la conclusión de un acuerdo marco para el suministro de productos higiénicos y de limpieza



administrazio klausula partikularren eta preskripzio teknikoen agiriak ere, eta hura adjudikatzeko prozedura irekia hastea xedatu zen.

Administrazio klausula partikularren agiriaren (AKBA) ezaugarrien taulako 3. apartatuan ezarritakoaren arabera, esparru akordioa 3 sortatan banatzen da eta enpresek sorta bakarrera edo hainbat sortatara aurkez ditzakete eskaintzak:

1. sorta: Produktu higienikoak.
2. sorta: Garbiketa produktuak.
3. sorta: Igerilekuetarako produktuak.

Artikulu beraren 3. paragrafoak aurreikusi duenez, sorta bakoitzerako, enpresa batekin egingo da esparru akordioa. Ondorengo kontratu oinarrituak adjudikatzeko, ez dago bigarren lizitazio bat egin beharrik, termino guztiak esparru akordioan finkatuko baitira.

Aurkezteko epearen barruan, enpresa hauen eskaintzak jaso ziren:

1. EUROVERMON SL, 1. eta 2. sortetarako.
2. GASKA GARBITASUNA HIGIENE SL, 1. eta 2. sortetarako.
3. JAI HORNIDURAK SL, 1. eta 2. sortetarako.
4. JUPER BAT SA, 1. eta 2. sortetarako.
5. LIDERA HIGIENE SL, 1. eta 2. sortetarako.
6. NETYA FERHIGIENE SL, 1. eta 2. sortetarako.
7. PRODUCTOS GARBITU SL, 1. sortetarako.
8. VADRISA SA, 1. sortetarako.

3. sorta hutsik geratu zen.

2021eko urtarrilaren 19an, kontratazio mahaiak BI

a través de la Central de Contratación Foral, así como los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de prescripciones técnicas, y se dispuso la apertura del procedimiento abierto para su adjudicación.

Conforme a lo establecido en el apartado 3 del cuadro de características del pliego de cláusulas administrativas particulares (PCAP), el acuerdo marco se divide en 3 lotes, pudiendo las empresas presentar ofertas para un único lote o para varios:

- Lote 1: Productos higiénicos.
- Lote 2: Productos de limpieza.
- Lote 3: Productos para piscina.

El mismo apartado 3 prevé que se procederá a la conclusión del acuerdo marco con una empresa para cada lote. Para la adjudicación de los posteriores contratos basados no será necesaria una segunda licitación, ya que todos los términos quedarán fijados en el acuerdo marco.

Dentro del plazo de presentación se recibieron ofertas de las siguientes empresas:

1. EUROVERMON, SL para los lotes 1 y 2.
2. GASKA GARBITASUNA HIGIENE, SL para los lotes 1 y 2.
3. JAI HORNIDURAK, SL para los lotes 1 y 2.
4. JUPER BAT, SA para los lotes 1 y 2.
5. LIDERA HIGIENE, SL para los lotes 1 y 2.
6. NETYA FERHIGIENE, SL para los lotes 1 y 2.
7. PRODUCTOS GARBITU, SL para el lote 1.
8. VADRISA, SA para el lote 1.

El lote 3 quedó desierto.

En fecha 19 de enero de 2021 la Mesa de



zenbakiko artxibo elektronikoa ireki zuen, balio judizio baten arabera baloratu beharreko dokumentazioari buruzkoa, eta Zerbitzu Orokorretako Zerbitzura bidaltzea erabaki zuen, azter zezaten eta dagokion balorazio txostena egin zezaten.

Balio judizioan jarritako irizpideen balorazioa, AKBaren arabera, ez zen soilik eskaintzetan aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta egin behar; aitzitik, produktuen laginen analisiaren bitartez ere egin behar zen, enpresak baztertzeko arrazoiren batean erortzen ziren egiaztatze aldera.

Urtarrilaren 26an, Zerbitzu Orokorretako buruak txosten bat egin zuen betekizun formalak eta preskripzio teknikoak betetzeari buruz, eta hori ikusita, Kontratazio Mahaiak, urtarrilaren 28an egindako bileran, 2. sortatik EUROVERMON SL eta NETYA FERHIGIENE SL enpresen proposamenak kanpo uztea erabaki zuen, preskripzio teknikoaren agiriko zehaztapenak ez betetzeagatik.

Urtarrilaren 29an, baztertu gabeko enpresei bidali zitzaizkien, posta elektronikoz, produktu higieniko eta garbiketa produktuen laginak emateko jarraibideak. Eskatutako laginak aztertuta, otsailaren 15ean, Zerbitzu Orokorretako buruak balio judizioaren pean jarritako esleipen irizpideen balorazio txostena egin zuen.

Otsailaren 19an, Kontratazio Mahaia bildu zen, HIRU zenbakidun artxibo elektronikoa irekitzeko. Saio horretan, eskaintza ekonomikoak eta formulen bidez ebalua daitezkeen eskaintzaren beste elementu batzuk ireki aurretik, adostutako bazterketak eta balio judizio bidez ebaluatu zitezkeen irizpideen arabera esleitutako puntuazioak jakinarazi ziren. Era berean, jakinarazi zen otsailaren 1ean JAI HORNIDURAK, SL enpresak idazki bat aurkeztu zuela erregistro elektronikoa, prezioen taulan akats aritmetiko bat zegoela jakinarazteko, hain zuzen ere, taulako 185. lerroan, 161 Beirak garbitzeko amoniakala

contratación procedió a la apertura del archivo electrónico nº DOS, referido a la documentación a valorar conforme a un juicio de valor, y acordó remitirla al Servicio de Servicios Generales para su examen y emisión del correspondiente informe de valoración.

La valoración de los criterios sometidos a juicio de valor se debía realizar, según el PCAP, no sólo con base en la documentación aportada en las ofertas sino también mediante el análisis de las muestras de los productos, al objeto de comprobar si las empresas incurrían en causa de exclusión.

En fecha 26 de enero se emitió informe por el jefe de Servicios Generales en cuanto al cumplimiento de los requisitos formales y de las prescripciones técnicas y, a la vista del mismo, la Mesa de contratación, en sesión celebrada el 28 de enero, acordó excluir del lote 2 las proposiciones de las empresas EUROVERMON, SL y NETYA FERHIGIENE, SL por incumplir las especificaciones del pliego de prescripciones técnicas (PPT).

En fecha 29 de enero se remitieron a las empresas no excluidas, por correo electrónico, las instrucciones para la entrega de las muestras de los productos higiénicos y de limpieza. Analizadas las muestras solicitadas, en fecha 15 de febrero se emitió por el jefe de Servicios Generales el informe de valoración de los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor.

El 19 de febrero se reunió la Mesa de contratación para la apertura del archivo electrónico nº TRES. En esta sesión, previamente a la apertura de las ofertas económicas y otros elementos de la oferta evaluables mediante fórmulas, se dieron a conocer las exclusiones acordadas y las puntuaciones asignadas en función de los criterios evaluables mediante un juicio de valor. Asimismo, se informó que el 1 de febrero la empresa JAI HORNIDURAK, SL había presentado en el registro electrónico un escrito comunicando que existía un error aritmético en



produktuaren kodearekin bat datorrena (2. sorta). Izan ere, "Eskainitako salmenta unitatea" zutabeen "1" (litro) adierazita zegoen, "1.000" (ml) adierazi beharrean. Produktu horren idazkia eta fitxa teknikoa kontuan hartuta, Mahaiak akatsa zuzentzea erabaki zuen, HIRU zenbakidun artxiboa ireki ondoren egin beharreko egiaztapena alde batera utzi gabe.

Ondoren, balio judizioen bidez ebalua daitezkeen irizpideen arabera lizitatzaileri esleitutako puntuazioa irakurri zen, HIRU zenbakidun artxibo elektronikoa ireki zen, eta JAI HORNIDURAK SLren Exceleko prezio taula zuzendu zen, produktu horri zegokion "eskainitako salmenta-unitatea" zutabeen "1.000" jarritz, "1"ren ordean. Formularen bidez balora daitezkeen irizpideen puntuazioak esleitu ziren, eta Mahaiak erabaki zuen kontratazio organoari proposatzea esparru akordioa egin zezan honako enpresa hauekin, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta:

1. sorta: VADRISA SA.

2. sorta: JAI HORNIDURAK SL.

Martxoaren 5eko 2021-0423 Foru Aginduaren bidez, 1. sorta (produktu higienikoak) VADRISA SA enpresarekin egitea ebatzi zen, 96.320,83 euroko zenbateko ponderatuarekin, BEZik gabe; eta 2. sorta (garbiketa produktuak) JAI HORNIDURAK SL enpresarekin, 93.925,35 euroko zenbateko ponderatuarekin, BEZik gabe.

LAUGARRENA.- Errekurtsogileak 2. sortaren esleipenaren aurka egin zuen, eta hura baliogabetzeko eskatu zuen. Argudiatu zuen ezen, formularen aplikazioaren bidez baloratu beharreko dokumentazioari buruzko HIRU zenbakidun artxibo elektronikoa 2021eko otsailaren 19an ireki zenean existitzen zela urtarrilaren 26ko txosten teknikoa, balio-judizioaren pean jarritako esleipen-irizpideen balorazioari buruzkoa, eta, beraz, ezaguna zela sorta horren puntuazio teknikoa

la tabla de precios, concretamente en la fila número 185 de la tabla, que se corresponde con el código de producto 161 Limpiacristales amoniaco (lote 2), ya que en la columna "unidad de venta ofertada" en lugar de indicar "1.000" (ml) había indicado "1" (litro). Teniendo en cuenta el escrito y la ficha técnica de ese producto, la Mesa decidió aceptar la corrección del error, sin perjuicio de la correspondiente comprobación tras la apertura del archivo nº TRES.

A continuación, se procedió a la lectura de la puntuación asignada a los licitadores en función de los criterios evaluables mediante juicio de valor, a la apertura del archivo electrónico nº TRES, y a corregir la tabla Excel de precios de JAI HORNIDURAK, SL, poniendo en la columna "unidad de venta ofertada" correspondiente a dicho producto "1.000", en lugar de "1". Se asignaron las puntuaciones de los criterios valorables mediante fórmulas y la Mesa acordó proponer al órgano de contratación la conclusión del acuerdo marco con las siguientes empresas, en base a la mejor relación calidad-precio:

Lote 1: VADRISA, SA.

Lote 2: JAI HORNIDURAK, SL.

Por Orden Foral 2021-0423, de 5 de marzo, se resolvió concluir el lote 1 (productos higiénicos) con la empresa VADRISA, SA por un importe ponderado sin IVA de 96.320,83 euros y el lote 2 (productos de limpieza) con la empresa JAI HORNIDURAK, SL por un importe ponderado sin IVA de 93.925,35 euros.

CUARTO.- La recurrente impugna la adjudicación del lote 2, cuya nulidad solicita, aduciendo que cuando el 19 de febrero de 2021 se procedió a la apertura del archivo electrónico nº TRES, referente a la documentación a valorar mediante la aplicación de fórmulas, ya existía el informe técnico de 26 enero respecto a la valoración de los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor y, por lo tanto, ya se conocía la puntuación técnica de dicho lote para



empresa lizitaztaile bakoitzarentzat, 19an bertan jakinarazi baitzen. Alegatzen du JAI HORNIDURAK SLren idazkia ez zela kontratazio plataforman jarri, eta publiko egin zela HIRU zenbakidun artxibo elektronikoa ireki zen egun berean.

Uste du, AKBAn aurreikusitakoaren arabera, ez zela akatsaren zuzenketa onartu behar, eta lizitaziotik kanpo utzi behar zela JAI HORNIDURAK SL enpresa, sorta horretarako ezarritako gehieneko balioa gainditzen zuelako eta alde zurretik enpresa horren balorazio tekniko ezagutzen zelako (lehen posizioa txosten teknikoan) akatsaren zuzenketa onartzerakoan.

BOSGARRENA.- Azaldutakoaren arabera, auzitan jartzen den gaia da zehaztea ea 2. sortaren enpresa esleipendunak eskaintza ekonomikoan egiten duen akatsa akats material konpongarria den ala ez.

AKBAren ezaugarrien taulako 4. atalak xedatzen du prezioa zehazteko sistema prezio unitarioena dela, eta argitzen du *“eskaintza ekonomikoaren eredu adierazitako prezio unitarioak erreferentziazkoak dira, ez gehienekoak («X20012_OfertaDetallada.xlsx» Excel fitxategia). Sorta bakoitzerako gehienekoa izango da «zenbateko haztatua», 2019ko kontsumoen batura (zenbateko horiek hartzen dira erreferentzia gisa produktu bakoitzaren haztapena ateratzeko) bider produktu bakoitzaren prezio unitarioa: $\sum \text{Kontsumoa}_{2019} \times \text{prezio unitarioa}$ ”*. Jarraian, sorta bakoitzerako gehieneko zenbateko haztatua adierazten da; zehazki, 2. loterako 123.365,92 euro da. AKBaren IX. eranskinean eskaintza ekonomikoaren eredu bat agertzen da, eta adierazten da Excel "X20012_oferta Detallada.xlsx" fitxategiaren emaitza sartu behar dela.

Bestalde HIRU artxibo elektronikoi buruzko AKBaren 21. klausulak aurreikusten duenez, artxibo horretan eskaintza ekonomiko eta formulen aplikazioaren bidez ebaluatu beharreko gainerako dokumentuak sartu beharko dira, eta proposamenek IX. eranskineko ereduari jarraitu

cada una de las empresas licitadoras, que se hizo pública el mismo día 19. Alega que el escrito de JAI HORNIDURAK, SL no se colgó en la plataforma de contratación y se hizo público el mismo día de la apertura del archivo electrónico nº TRES.

Considera que, de acuerdo con lo previsto en el PCAP, no se debería haber aceptado la corrección del error y se tenía que haber excluido de la licitación a la empresa JAI HORNIDURAK, SL por exceder el valor máximo establecido para dicho lote y por conocerse de antemano la valoración técnica de dicha empresa (primera posición en el informe técnico) a la hora de aceptar la corrección del error.

QUINTO.- Conforme a lo expuesto, la cuestión controvertida radica en determinar si el error en el que incurre la empresa adjudicataria del lote 2 en su oferta económica es un error material subsanable.

Dispone el apartado 4 del cuadro de características del PCAP que el sistema de determinación del precio es el de precios unitarios y aclara que *“los precios unitarios indicados en el modelo de oferta económica (fichero Excel «X20012_OfertaDetallada.xlsx») son precios de referencia y no máximos. Será máximo para cada lote el «Importe ponderado» que se obtiene como suma de los consumos de 2019, que se toman como referencia para la ponderación de cada producto, por el precio unitario de cada uno: $\sum \text{Consumo}_{2019} \times \text{Precio ud.}$ ”*. A continuación, se indica el importe ponderado máximo para cada uno de los lotes, y en concreto para el lote 2 se fija en 123.365,92 euros. En el Anexo IX del PCAP figura un modelo de oferta económica y se indica que debe incorporarse el resultado del fichero Excel “X20012_OfertaDetallada.xlsx”.

Por su parte, la cláusula 21 del PCAP, relativa al archivo electrónico nº TRES, prevé que en este archivo se deberán incluir la oferta económica y el resto de documentos a evaluar mediante la aplicación de fórmulas, y que las proposiciones deberán ajustarse al modelo que figura en el



beharko diote, eta ez dira onartuko Administrazioak eskaintza kontuan hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi eta garbi ezagutzea eragozten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituztenak.

Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duenak, aurreikusitakoarekin bat etorritik, zehazki 84. artikuluan (proposamenak baztertzea), 21. klausula horrek honako hau gaineratzen du 3. atalean: *“Eskaintzaren batek lizitazio oinarriaren aurrekontua gaituzten badu, ezarritako eredu nabarmen aldatzen badu, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria badu edo enpresa lizitatuak berak aitortzen badu akatsak dituela eta ez dela bideragarria, kontratazio mahaiak baztertu egingo du ebazpen arrazoitu bat emanez. Aldiz, eredu hitz batzuk aldatzea edo kentzea, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahiko arrazoi izango proposamena baztertzeko”.*

SEIGARRENA.- JAI HORNIDURAK SLk 2021eko urtarrilaren 15ean aurkeztu zuen bere eskaintza, eta otsailaren 1ean idazki bat aurkeztu zuen. Idazki horretan adierazten zuenez, 161 Beirak garbitzeko amoniakala produktuaren kodeari dagokion prezio taulako 185. lerroan nahigabeko akats bat egin zuen "eskaintzako salmenta-unitatea-Cant" zutabearen. *"Izan ere, "ml" unitate mota kontuan hartu beharrean, "litroa" hartu da neurritzat (aurreko eta ondorengo lerroetan neurriak "litroa" ziren; alabaina, honetan, neurria "ml" zen). Horregatik, akats aritmetiko bat egin dugu; izan ere, 1.000 (ml) adierazi beharrean 1 (litro) adierazi dugu, eta, ondorioz, "prezio bateratuan" argi eta garbi irreal den emaitza bat ateratzen da". Akatsa zuzentzeko eskatzen zuen idazkian, akatsa nahigabe egina eta agerikoa baita, eta aurkeztu diren gainerako eskaintzak ezagutu baino lehen jakinarazi baita.*

Kontratazio-organoak bere txostenean azaltzen duenez, "X20012_OfertaDetallada.xlsx" Excelean, enpresek, artikuluen prezio unitarioa adierazteaz gain, eskaintzen zuten salmenta unitatearen bolumena ere adierazi behar zuten (luzera, edukiera edo unitate kopurua); izan ere, fabrikatzaileek

Anexo IX, no aceptándose aquellas que contengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer claramente lo que la Administración estime fundamental para considerar la oferta.

En consonancia con lo previsto en el Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, concretamente en su artículo 84 (rechazo de proposiciones), esta cláusula 21 añade en su apartado 3 que *“si alguna proposición excediese del presupuesto base de licitación, variara sustancialmente el modelo establecido, o comportase error manifiesto en el importe de la proposición, o existiese reconocimiento por parte de la empresa licitadora de que adolece de error o inconsistencia que la hagan inviable, será desechada por la mesa de contratación, en resolución motivada. Por el contrario, el cambio u omisión de algunas palabras del modelo, con tal que lo uno o la otra no altere su sentido, no será causa bastante para el rechazo de la proposición”.*

SEXTO.- JAI HORNIDURAK, SL presentó su oferta el 15 de enero de 2021 y el 1 de febrero presentó escrito en el que indicaba que en la fila número 185 de la tabla de precios, correspondiente al código de producto 161 Limpiacristales amoniacal, había cometido un error involuntario *“en la columna “unidad de venta ofertada-Cant” ya que en vez de tener en cuenta el tipo de unidad “ml” se ha tomado como medida “litro” (en las filas anteriores y posteriores la medidas tomadas eran “litro”, sin embargo, en esta fila, la medida correspondía a “ml”). Por esto, hemos cometido un error aritmético, ya que en lugar de indicar 1.000 (ml) hemos indicado 1 (litro) de forma que en el “Precio unificado” se obtiene un resultado claramente irreal”.* Solicitaba en el escrito que se acepte la corrección del error, dado que es involuntario y evidente y se ha comunicado antes de conocer el resto de las ofertas presentadas.

El órgano de contratación explica en su informe que en la Excel “X20012_OfertaDetallada.xlsx” las empresas, además de indicar el precio unitario del artículo, debían indicar también el volumen (longitud, capacidad o número de unidades) de la unidad de venta que ofertaban,



beren produktuak bolumen desberdinekin egiten dituztenez, beharrezkoa da enpresa bakoitzak eskaintzen dituen prezioak homogeneizatzea. JAI HORNIDURAK SL enpresak eskaintako salmenta unitateari dagokion gelaxkan "1" (litro) jarrita "1.000" (mililitro) jarri beharrea, prezio bateratuaren eta urteko zenbatekoaren zifrak zuzenak baino 1.000 aldiz handiagoak ziren. Txostenak gaineratzen du, Kontratazio Mahaiak akatsa agerikoa zela ikusi zuela; izan ere, alde batetik, ezinezkoa da eskaintako ontzia 1 ml-koa izatea, eta, bestetik, bai indizean bai bigarren artxibo elektronikoa aurkeztutako memoria teknikoaren fitxa teknikoan egiaztatu daiteke eskaintako produktuaren ontzia litro batekoa dela. Horregatik, Mahaiak zuzenketa eskaera onartu zuen eta enpresei jakinarazi zien HIRU zenbakidun artxibo elektronikoak irekitzeko ekitaldian, eskaintza ekonomikoak ireki aurretik.

JAI HORNIDURAK SL enpresak Excel orria betetzean egindako akatsaren ondorioz, prezio bateratuaren eta urteko zenbatekoaren zifrak 1.000 aldiz handiagoak ziren, hau da, 825 zen 0,83 izan beharrea, eta 203.775 zen 203,78 izan beharrea, hurrenez hurren. Horren ondorioz, zenbateko haztatu osoa 297.496,57 euro zen, eta 93.925,35 euro zuzenketa egin ondoren. Horrela, gainditu egiten zen Administrazio Klausula Berezien Agirian ezarritako 123.365,92 euroko gehieneko zenbateko haztatua.

ZAZPIGARRENA.- Errekurtsogileak adierazi du 2021eko urtarrilaren 26an existitzen zela BI zenbakiko artxibo elektronikoaren txosten tekniko bat, eta, beraz, alde aurretik ezagutzen zela sorta horrek enpresa lizitzaile bakoitzarentzat zuen puntuazio teknikoa.

Hala eta guztiz ere, urtarrilaren 26an sinatutako txostenaren helburua izan zen BI zenbakiko artxibo elektronikoa jasotako dokumentazioaren baldintza formalak betetzen ote ziren aztertzea, baita aurkeztutako eskaintzak Preskripzio Teknikoen Agirira egokitzen ote ziren aztertzea ere, eta, horretan oinarrituta, hura betetzen ez zuten enpresak baztertzea, eta, ondoren, baztertu gabeko

puesto que, como los fabricantes confeccionan sus productos con volúmenes diferentes, es preciso homogeneizar los precios que oferta cada empresa, y que, al indicar JAI HORNIDURAK, SL en la celda correspondiente a la unidad de venta ofertada "1" (litro) en lugar de "1.000" (mililitros), las cifras del precio unificado y del importe anual resultaban 1.000 veces superiores a las correctas. Añade el informe que la Mesa de contratación apreció que el error resultaba evidente ya que, por un lado, es imposible que el envase ofertado sea de 1 ml y, por otro, porque tanto en el índice como en la ficha técnica de la memoria técnica presentada en el archivo electrónico nº DOS se puede comprobar que el envase del producto ofertado es de 1 litro. Es por ello que la Mesa aceptó la solicitud de subsanación y lo comunicó a las empresas en el acto de apertura de los archivos electrónicos nº TRES, antes de abrirse las ofertas económicas.

La consecuencia del error cometido por JAI HORNIDURAK, SL, al cumplimentar la hoja Excel es que las cifras del precio unificado y del importe anual resultaban 1.000 veces superiores, es decir, 825 en lugar de 0,83 y 203.775 en lugar de 203,78, respectivamente. Ello determinaba que el importe total ponderado alcanzara la cifra de 297.496,57 euros frente a los 93.925,35 euros resultantes tras la rectificación, superando de esta forma el importe máximo ponderado de 123.365,92 euros fijado en el PCAP.

SÉPTIMO.- La recurrente indica que a fecha 26 de enero de 2021 ya existía un informe técnico del archivo electrónico nº DOS y que, por lo tanto, se conocía previamente la puntuación técnica de dicho lote para cada una de las empresas licitadoras.

Lo cierto es, sin embargo, que el informe suscrito en fecha 26 de enero tuvo por objeto únicamente analizar el cumplimiento de los requisitos formales de la documentación incluida en el archivo electrónico nº DOS, así como analizar si las ofertas presentadas se ajustaban al PPT y en base a ello excluir a las empresas que lo incumplían, para con posterioridad solicitar a



enpresei laginak emateko eskatzea, probak egin eta eskaintako produktuak analizatzeko.

Laginak aurkezteko jarraibideak eta zerrenda urtarrilaren 29an bidali zitzaizkien lizitatuzaileei eta, zehazki, errekurtsogileari. Jarraibide horien arabera, laginak otsailaren 1etik 5era bitartean entregatu behar ziren, eta 2. sortako proben egutegia otsailaren 8tik 11ra bitartekoa izango zen. Beraz, kontratazio organoaren txostenean jasotzen den bezala, balorazioa ezin izan zen egin otsailaren 12a baino lehen. Izan ere, balio judizioko esleipen irizpideen balorazio txostena otsailaren 15ekoa da, eta bertan jasotzen da otsailaren 8ko astean eskatutako laginen analisisa egin zela, zentzumen behaketaren eta garbigailuaren eta ontzi-garbigailuaren proben bidez.

JAI HORNIDURAK SL enpresaren zuzenketa eskaera erregistro elektronikoen bidez jaso zen otsailaren 1ean, eta HIRU zenbakidun artxibo elektronikoa ireki zen egunean jakinarazi zen, hau da, otsailaren 19an, balio judizio bidez ebalua daitezkeen irizpideei esleitutako puntuazioa argitaratu eta HIRU zenbakidun artxibo elektronikoa ireki aurretik. Otsailaren 1ean balio judizioaren pean jarritako irizpideen balorazio txostena ere egin gabe zegoen, txostena otsailaren 15ean eman baitzen, ez urtarrilaren 26an. Bestalde, errekurtsogileak iradokitzen duenaren aurka, JAI HORNIDURAK SL enpresak ez zuen sartu BI zenbakiko artxibo elektronikoa HIRU zenbakiko fitxategi elektronikoen informaziorik. Otsailaren 1ean aurkeztutako idazkiak prezioen taulan akats aritmetiko bat zegoela baino ez zuen aipatzen, eskaintako prezioari buruzko informaziorik eman gabe.

ZORTZIGARRENA.- Puntu honetara iritsita, egokia da Kontratu Errekurtsioen Administrazio Auzitegi Nagusiaren doktrina aipatzea, lizitatuzaileek aurkeztutako eskaintzetako akatsak

las no excluidas la entrega de muestras para realizar las pruebas y el análisis de los productos ofertados.

Las instrucciones y el listado para la presentación de muestras se remitieron a las licitadoras, y en concreto a la recurrente, en fecha 29 de enero. De acuerdo con estas instrucciones las muestras se debían entregar entre el 1 y el 5 de febrero y el calendario de las pruebas del lote 2 sería entre el 8 y el 11 de febrero. Por tanto, como se recoge en el informe del órgano de contratación, la valoración no pudo realizarse antes del 12 de febrero. De hecho, el informe de valoración de los criterios de adjudicación sometidos a juicio de valor es de fecha 15 de febrero y en él se hace constar que la semana del 8 de febrero se procedió a hacer el análisis de las muestras solicitadas mediante observación sensorial y pruebas de lavadora y lavavajillas.

La solicitud de rectificación de JAI HORNIDURAK, SL se recibió a través del registro electrónico el 1 de febrero, se dio a conocer el día de la apertura del archivo electrónico nº TRES, es decir el 19 de febrero, antes de hacerse pública la puntuación asignada a los criterios evaluables mediante un juicio de valor y de procederse a la apertura de los archivos electrónicos nº TRES. A fecha 1 de febrero ni siquiera se había realizado el informe de valoración de los criterios sometidos a juicio de valor, ya que el informe se emitió el 15 de febrero, no el 26 de enero. Por otro lado, contrariamente a lo que parece sugerir la recurrente, JAI HORNIDURAK, SL no incluyó en el archivo electrónico nº DOS ninguna información propia del archivo electrónico nº TRES. El escrito presentado el 1 de febrero sólo hacía referencia a la existencia de un error aritmético en la tabla de precios, sin ofrecer ninguna información sobre el precio ofertado.

OCTAVO.- Llegados a este punto, resulta oportuno traer a colación la doctrina del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales en relación con la subsanación de



zuzentzeari dagokionez. Horrela, 137/2017 Ebazpenean, 164/2011 Ebazpena aipatuz, honako hau adierazten da: *"Jurisprudentziak batzuetan onartu du eskaintza ekonomikoko akatsak zuzentzea, baina ez da ahaztu behar eskaintza ekonomiko horrek eskatzen duela akats edo omisio horiek formalak edo materialak izatea beti. Logikoa da hori, beraz, zuzenketa faktikoak edo formalak baino ez diren akats edo omisioei eragiten dieten akatsez haratago doazen zuzenketa onartuz gero, inplizituki onartuko litzateke proposamenak fuintsean aldatzeko aukera, aurkeztu ondoren. Aukera hori kontratu publikoak esleitzeko prozeduren filosofia intimoenaren guztiz kontrakoa da, guztiz hausten baititu diskriminaziorik ezaren, tratu -berdintasunaren eta gardentasunaren irizpideak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 1 eta 123. artikuluek berariaz jasotzen dituztenak".*

Kasu honetan, auzitegi honen ustez, akats material nabarmena baino ez dena zuzendu behar da, eskaintako produktuaren fitxa teknikitik zuzenean ondoriozta daitekeena.

Hain zuzen ere, 161 produktu koderako (beirak garbitzeko amoniakala), JAI HORNIDURAK SL enpresak BI zenbakiko artxibo elektronikoa "DORIL LIMPIACRISTALES 1 L" eskaintzen zuen. Haren fitxa teknikoak azaltzen duenez, 1 litroko botiletan aurkezten da, 12 unitateko kaxatan. Hala ere, HIRU zenbakiko artxibo elektronikoa sartutako Excel orria bete zutenean, "Eskaintako salmenta-unitatea" zutabea "1" jarri zuten, salmenta unitatea mililitrotan zegoen arren.

Izan ere, AKBAn aurreikusitako eskaintza ekonomikoaren ereduari erantsitako Excel orriko atalak betetzerakoan, argi eta garbi okerreko neurri unitate bat jarri zuten, eta hori zuzentzeak ez du esan nahi legez baimenduta ez dagoen eskaintza birformulatu behar denik; izan ere, neurri unitatea zuzentzean, eskaintako prezioa automatikoki baztertu zen orrian. Eskaintza teknikoan aurkeztutako dokumentaziotik argi eta garbi ondorioztatzen da akatsa, inongo interpretaziorik egin beharrik gabe, eta lizitaztaileak berak adierazi zuen bat-batean eta aurkeztutako eskaintzen baloraziorik egin aurretik.

defectos en las ofertas presentadas por los licitadores. Así, en la Resolución nº 137/2017 se indica, con cita de la Resolución nº164/2011, que *"la jurisprudencia ha admitido en ocasiones la subsanación de defectos en la oferta económica, pero que "no debe perderse de vista que ésta exige que, en todo caso, tales errores u omisiones sean de carácter puramente formal o material. Ello es lógico, pues, de aceptarse subsanaciones que fueran más allá de errores que afecten a defectos u omisiones de carácter fáctico o meramente formal, se estaría aceptando implícitamente la posibilidad de que las proposiciones fueran modificadas de modo sustancial después de haber sido presentadas. Tal posibilidad es radicalmente contraria a la filosofía más íntima de los procedimientos para la adjudicación de contratos públicos, pues rompe frontalmente con los criterios de no discriminación, igualdad de trato y transparencia que de forma expresa recogen los arts. 1 y 123 de la Ley de Contratos del Sector Público".*

En el presente caso este Tribunal entiende que procedía aceptar la rectificación de lo que no es más que un error material manifiesto, deducible por sí solo de la ficha técnica del producto ofertado.

En efecto, para el código de producto 161 (limpiacristales amoniacal), JAI HORNIDURAK, SL ofertaba en el archivo electrónico nº DOS el producto "DORIL LIMPIACRISTALES 1 L", cuya ficha técnica explica que su presentación es en botellas de 1 litro en cajas de 12 unidades. Sin embargo, cuando rellenaron la hoja Excel incluida en el archivo electrónico nº TRES, en la columna "unidad de venta ofertada" pusieron "1", a pesar de que la unidad de venta tipo era en mililitros.

Por lo expuesto, puede concluirse que estamos ante un evidente error de transcripción cometido por el licitador, quien, a la hora de cumplimentar y rellenar los apartados de la hoja Excel incorporada al modelo de oferta económica previsto en el PCAP, consignó una unidad de medida manifiestamente errónea, y su rectificación no supone una reformulación de la oferta no permitida legalmente, ya que al rectificar la unidad de medida el precio ofertado se recalculó automáticamente en la hoja Excel. El error se deduce claramente de la documentación presentada en su oferta técnica,



sin necesidad de interpretación alguna, y fue puesto de manifiesto por la propia licitadora de manera espontánea y antes de que se hiciera ninguna valoración de las ofertas presentadas.

BEDERATZIGARRENA .- Ez da antzeman fede txarrik edo ausarkeriarik errekurtsoa aurkeztean, Auzitegia errekurtsogileei isun bat jartzera eraman dezakeena, SPKLak 58.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

NOVENO.- No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a las recurrentes una multa en los términos previstos en el artículo 58.2 LCSP.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

En su virtud, este Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

ERABAKITZEN DU

ACUERDA

LEHENA.- Ezestea GASKA GARBITASUNA HIGIENE SL enpresak aurkeztutako kontratazio alorreko errekurtso berezia.

PRIMERO.- Desestimar el recurso especial en materia de contratación interpuesto por GASKA GARBITASUNA HIGIENE, SL.

BIGARRENA.- Adjudikazio egintzaren etenaldia indargabetzea.

SEGUNDO.- Levantar la suspensión del acto de adjudicación.

SPKLk 59.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 59.1 LCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Donostia, 2021eko ekainaren 1a / San Sebastián, 1 de junio de 2021.